

“LANA ANTOLATZEN ETA TALDEAN LAN EGITEN IKASI DUTE”



Elgoibar Ikastola | Cristina Garcia | Kosmopantxika | DBH

Talde-lana Kosmodiseako balorerik garrantzitsuenetakoa dela azpimarratu du. Hona hemen Elgoibar Ikastolako Kosmopantxika taldeko arduradun Cristina Garcíaren iritzia. Bigarren postua lortu dute Bigarren Hezkuntzan.

Aurreko faseetan taldea ez zen lehen lekuetan kokatu. Zer dela-eta sartu da azken orduan “ustekabea”?

Ez dakit, nire ustez lan ona egin dutelako izango da.

Kosmodiseak aurrera egin ahala parte-hartze handiagoa izan dute ikasleek, edo, alderantziz, hasieran gogo handiz hasi eta ondoren hoztu egin dira?

Ikasturtean zehar lan berdintsua egin dute, hasieran martxan hasi arte, ulertu arte ez ziren asko inplikatzeko, baina gero bai.

Lehiaketaren egiturak ikasturtearen jarduna oztopatzen du edo elkarren osagarri dira?

Osagarria da baina egia esan denbora asko dedikatu behar zaio, baina ikasleentzat positiboa da, lana antolatzen eta taldeka moldatzen erakusten dielako.

Sari baten bidez aitortuak izateko aukerak motibatzen al ditu ikasleak?

Adin hortako ikasleentzat sariak garrantzitsuak dira, eta beti motibatzen ditu.

Eta irakasleak? Ikastetxea?

Baita ere.

Zein izan da Kosmodisean bizitutako esperientziaren onena?

Aiton amonekin bizi izan duten elkarlana, oso positiboa izan da.

Zailtasun handienak noiz eta zergatik sortu dira?

Hasieran zer egin behar zuten eta kosmodisea zer den ulertu arte.

Edizio hau eta aurrekoak ikusi ondoren, ekimen honetan parte hartzearen esperientziak zein ondorio ekarri dizkie ikasleei?

Ondo pasatzen dutela, elkar lana eta bizikidetza hobetzen dela.

Eta irakasleei?

Ikasleekin eguneroko jardun bat ez dena kudeatzen.

Zortzigarren Kosmodisean parte hartzeko prest zaudete?

Bai.

Ekimena hobetzeko ekarpenik egin nahi duzue?

Gaiak ingurumenarekin eta alkarbizitzarekin lotuta izatea.